

2021eko **Batzar** **Nagusia**

Gai-zerrendako puntuak: 16 eta 17

Borondatezko ekarpenen urteko interes-tasa eta sortzapen-aldia

AURKIBIDEA

Nazioarteko egoera ekonomikoa:	2
Kooperatibaren egoera ekonomikoa:	2
Borondatezko kapital sozialaren interesen sortzapen-aldia aldatzeko proposamena	2
Proposamena onartzen bada izango dituen ondorioak:	3
2021. urterako borondatezko kapital sozialaren urteko interes-tasaren proposamena	3
Proposamena onartzen bada izango dituen ondorioak:	3

Nazioarteko egoera ekonomikoa:

- Azken urtean diruaren interes-tasa oso ehuneko apaletan egon da, aurreko urtekoaren azpitik.
- 2020. urteaz geroztik, finantza-erakundeek erreserbei % 0,5eko zerga aplikatu die Europako Banku Zentralak eta bankuek, berriz, kostu hori bezeroei kobratzen diete, kontu korronteen batez besteko saldoak mantentzeko komisioen bidez.

Kooperatibaren egoera ekonomikoa:

- Merkaturatze-jarduerak emaitza sendoei eutsi die.
- Tarifak urterokoak izatetik sei hilekoak izatera pasatzeak etorkizuneko merkatuaren bidez bermatu beharreko energia-bolumena murrizteko aukera eman digu, eta horri esker murriztu egin dira, halaber, prezio-jaitsiera handiei aurre egiteko behar dugun baliabideen bolumenak.
- Kooperatibak sustatutako sorkuntza-proiektuek espero zen etekina ematen jarraitzen dute.
- Eraikitzeko asmoa geneuzkan sorkuntza-proiektu berri batzuk "erori" edo atzeratu egin dira, hainbat arrazoi direla eta.

Borondatezko kapital sozialaren interesen sortzapen-aldia aldatzeko proposamena

Batzarrak maiatzean onartzen ditu interes-tasak baina interes horiek urte naturalari dagozkio (urtarriletik abendura). Beraz, denbora-tarte batez (urtea hasi eta ia sei hilabete igaro arte, hain zuzen ere) kapital-ekarpena egin duten bazkideek ez dute jakiten zenbateko ordainsaria jasoko duten kapital horrengatik.

Urteko interesaren likidazio bakarra egiten jarraitzea proposatzen dugu, baina likidazio horren data aldatzea, uztailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era bitarteko tartearen dezan.

Proposamena onartzen bada izango dituen ondorioak:

- Interesak likidatzeko aldia aldatzean, bazkideek alde zaureratik jakingo dute zer interes aplikatuko zaien beren ekarpenei.
- 2021. urtean, salbuespen gisa eta aldi berrietara egokitzeko (sortzapen-aldia aldatu baita), sei hileko likidazio bakarria egingo da (urtarrilaren 1etik ekainaren 30era artekoa) 2020ko interesa aplikatuta (% 1,75).
- Horren ondoren, 2021eko uztailetik 2022ko ekainera arteko sortzapen-aldi berria aplikatzen hasiko ginateke, Batzarrean onartutako interes-tasa berriarekin.

2021. urterako borondatezko kapital sozialaren urteko interes-tasaren proposamena

Bai kooperatibak egun duen egoeraren ondorioz (azken urteotan lortutako emaitza ekonomiko onak eta altxortegiaren egoera ona direla eta), bai egoera ekonomiko orokorraren ondorioz (oso interes-tasa baxuak, are negatiboak ere), **2021 ekitaldian kapital sozialari egiten zaizkion borondatezko ekarpenei aplikatzen zaien interesa murriztea proposatzen da, eta tasa hori % 1 izatea**

Proposamena onartzen bada izango dituen ondorioak:

- Ez dugu uste interesen murrizketa horrek kooperatibaren sinesgarritasunean eta gure kapital sozialaren sendotasunean eragin negatiborik izango dituenik.
- Ez dugu uste, ezta ere, halako murrizketen ondorioz ekarpenak masiboki erretiratuko direnik, iruditzen bazaigu baldintza onak eta interesgarriak izaten jarraitzen dutela.
- Edonola ere, egoera hori gertatuko balitz, likidezia nahikoa dugu ekarpenak itzultzeko.